


FUNTSEZKO BALIABIDEAK



Gure negozio ideia aurrera eramateko behar ditugun funtsezko baliabideak, ezinbestekoak izango direnak gure zerbitzua bezeroei helarazteko eta bezeroekin harremanak mantentzeko, hurrengo hauek dira:

- **Baliabide fisikoak bezala:**
 - Garraioa, gure kasuan autobusa.
 - Teknologia jardueretarako materiala; ordenagailuak eta informatika gelak.
 - Memoria lantzeko jardueretarako materiala; sudokuak, gurutzegrama, letra zopa, boligrafoak...
 - Sukaldaritzarako tresneria; janaria eta sukaldaritzako tresnak.
 - Kultura eta antzerki saioetako toki espezifiko bat (lokala).
 - Antzerkigintzarako materiala: girnaldak, kartulinak, jantziak, makilajea, margoak...
 - Jarduera fisikoetarako materiala; baloiak, esterilak, mankuernak, bozgorailuak, parke geriatrikoa...

- **Baliabide intelektual bezala**, adin nagusiko pertsonekin tratatzeko ezaugarriak behar ditugu, adibidez: enpatia, pazientzia eta adeitasuna. Bestalde, jarduerak burutzeko gutxieneko prestakuntza bat ere beharrezkoa izango da; hala nola, informatikan, garraioan, sukaldaritzan eta jarduera fisikoetan.



- **Gure giza baliabideak** bi taldetan banatuko ditugu: alde batetik, jarduerak antolatuko dituztenak daude, eta bestetik, garraiorako behar dugun enpresa.
- **Finantza-baliabide bezala**, herriko udaletxea izango dugu. Gainera, bost kideotako bakoitzak 550€-ko inbertsioa egingo dugu, hasierako ezinbesteko materiala eta abar erosi ahal izateko.